

KULTURA ANIZTASUNARI BURUZKO ADIERAZPENA, BAKEAREN NAZIOARTEKO EGUNEAN.

UNESCO ETXEAREN EKARPENA

Ohorezko Bazkideen Batzorde Aholkulariaren bilera dela-eta UNESCO etxeak - Euskal Herriko UNESCO Zentroak honako hau aurkezten du:

ADIERAZPENA

1. *Nazio Batuetako Gutuna* eta *Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala* garatuz, Nazio Batuetan atera berri den 2005eko *Estatu Buruen Goi Bileraren Adierazpenak* honako hau aldarrikatzen du: "Kultura eta zibilizazio guztiek gizateria aberasten lagundu dezakete. Mundu osoko aniztasun etnikoa, erlijiosoa eta kulturala onartzearen garrantziaz ohartzen gara eta baita kultura eta zibilizazio desberdinen artean elkarrizketa, ulermena, tolerantzia eta errespetua indartzeko beharraz ere, nazioarteko bakea eta segurtasuna sustatzeko."
2. Ospatzen dugu honako dokumentuak onartu izana: *Kultura askatasuna gaur egungo mundu anitzean* izenburupeko *Giza garapenari buruzko Txostena* (1994) (PNUD), *Kultur Aniztasunaren aldeko Madrileko adierazpena* (2005) eta UNESCO Etxeko *Munduko hizkuntzei buruzko txostena* (2005).
3. 2001eko UNESCOren *Kultur Aniztasunaren Adierazpen Unibertsalaren* garapen modura UNESCOren Biltzar Nagusiaren 33. Saioan (2005) proposatuko den *Kultur edukien Aniztasunaren eta Adierazpen Artistikoen Babesari buruzko Hitzarmenaren* alde gaude.

Biltzar Nagusiari proposatuko diogu hitzarmen hori sinatuko duten Estatu-partaideek beren betebeharreri erantzun diezaieten jarraipena egiteko diru- egituraketa- eta araubidezko baliabideak indartzea.
4. Gaur, irailaren 21ean, Nazioarteko Bake egunean, ezin dugu ahantzi kultura aniztasuna herrien arteko eta askatasunetan oinarritutako bake duina lortzeko oinarria dela. Kultura arteko talkan ez dugu sinisten, kultura bizien arteko elkarbizitzan baizik. Ildo horretan, pozten gara Nazio Batuetan eginiko Estatu eta Gubernuburuen Goi Bileran (2005) onarturiko ekimena, zeinaren bitartez, Zibilizazioen arteko Aliantzarako Goi Mailako Taldea eratuko den. Ekimen horri babesa eman nahi diogu gure ekarpenaren bitartez eta garrantzizko emaitza izan dezan desio dugu. Bake Kulturaren eraikuntzak gatazken eraldaketa goiztiarra izan dezaten lagun dezake.
5. Kultura aniztasuna eta hizkuntza aniztasuna kontzeptu kideak dira. Kultura aniztasunak sorkuntza eta adierazpen bideak diren hizkuntzen errespetua eta sustapena dakar. Badakigu munduko 6.000 hizkuntzetatik gutxienik 2.000 inguru desagertze bidean direla, eta hala ere diogu hizkuntza guztiak gizateriaren kultur ondare nagusienetakoak direla. Munduko hizkuntza ondarearen benetako babesa eta sustapena kultura aniztasunaren

ezinbesteko zutabeak dira, eta honen ondorioz *Munduko Hizkuntzei Buruzko Txostenak* (2005) dioena onartzen dugu.

Hizkuntza guztiek dute komunikatzeko gaitasun eta ahalmen intelektual berdina, eta ez da bidezkoa beraien arteko hierarkirik ezartzea. Azpimarratu behar da norberaren hizkuntza eta kultura identitatea eta estimu pertsonal eta kolektiboaren funtsa direla. Horregatik, botere publikoek hizkuntza babesteko eta sustatzeko neurriak ezarri behar dituzte, lurraldean hitz egiten diren hizkuntzen onarpen ofiziala ziurtatuz. Jarrera negatiboak eragiten dituzten aurreiritzi linguistikoak arbuiatzen ditugu, bereziki hizkuntza gutxituei kalte egiten baitiete.

6. UNESCO Kultura eta hizkuntza guztien etxea izan dadin nahi dugu, munduko elkargunea izango dena. Erakunde horri eskatu nahi diogu bere lan eta bileretan ahalik eta hizkuntza eta kultur gehiagoren presentzia ziurta dezan, eta ez soilik Estatuetan nagusiak direnak. Era berean, uste dugu UNESCO, 2001eko Kultura Aniztasunaren Adierazpenaren ildotik, "Hizkuntza Askatasunari buruzko Hitzarmena" proposatu beharko lukeela. Helburu horrekin ekimenak abian jarriko ditugu.
7. Kultura aniztasuna eta aniztasun biologikoa etorkizuneko belaunaldiei zor diegun ondasunak dira. Kultura aniztasuna eta hizkuntza aniztasunean oinarritutako garapen iraunkorra sustatzen dugu.

Munduarentzat defenditzen dugun kultura aniztasuna bertoko aniztasunaren errespetuan eta sustapenean oinarritzen behar da. Euskal Herriko erakundea izanik, gizarte anitza eta askotariko identitateak dituen sortzera konprometitzen gara, euskal herritar guztien askatasuna bermatuko duena, eta kultura arteko talkak sortu ditizakeen mugimendu intolerantei aurre egiten diena. Euskararen sustapenean, ikaskuntzan eta erabileran oinarritutako elkarbizitzaren indartzea bultzatzen dugu; Elebitasun errealerantz joan dadin eta eleaniztasunerantzko urratsak emango dituen. Era berean beste hizkuntzen eta kulturen elkarulertze hobea bideratuko dugu, etorkinenak direnak barnean direla.

8. Defendatzen dugu nazioarteko merkataritzaren garapena, herrien garapenerako hain beharrezkoa dena, arau eta balore zehatzen menpe egon behar dela, bere emaria kultura guztiek balia dezaten. Nazioarteko merkataritzak, helburu horrekin, kultura aniztasunean eragin zuzena duten zenbait ondasun eta zerbitzu modu berezitan erabili behar ditu. Ondasun eta zerbitzu kultural horien komertzioz kanpoko ezaugarri bereziak errespetatu behar dira; horrek ez du esan nahi nazioarteko merkataritzaren neurri eta intentsitatearen garapena murriztu behar denik, baizik eta mundu osoko onurari begira, esparru pertsonalean eta kolektiboan.

Munduko iritzi publikoa nazioarteko sorkuntzaren berezitasuna justifikatzen duten irizpideez jabetu dadin proposatuko dugu nazioarteko kultura ondasun eta zerbitzuen transakzioetan tasa berezi bat jartzea, UNESCOk eta enpresa ordaintzaileen artean kudeatuko luketen fondo bat eratzeke asmoz, munduko ondare kulturala sustatzeko eta zabaltzeko izango den fondoa, hain zuzen.

9. Euskal erakunde bat izanda, gizarte irekia bultzatzearen erantzukizuna hartzen dugu. Bertakoa baloratu, babestu eta sustatzeaz gain, ekarritakoaz interesatzen den gizartea, ikuspegi zabalarekin, instrumentu ekonomiko, sozial, gobernuzkoak eta legalez hornitu

dena. Era horretan, European eta munduan globalizazioaren erronkei erantzuteko gaitasuna izango du aliantza eta baterako ekintzen bitartez.

10. Gizarte zibilari eta Euskal Herriko, Espainiako, Europako eta munduko agintariei dei egiten diegu printzipio hauek konpartituz, UNESCOko Hitzarmena bultzatu dezaten, eta Kultur Aniztasunaren defentsarako eta sustapenerako erabili dezaten. Modu berean gonbidatzen ditugu norberaren lan arloan eta erantzukizunetan adierazpen honen beste edukiak babestu ditzaten.

Joaquín Achúcarro

Juana Carro

Jose Antonio Ardanza

Daniel Innerarity

Txomin Bereciartua

Fèlix Martí

Federico Mayor Zaragoza

Ruper Ormaza (UNESCO Etxeko lehendakaria)

Mikel Mancisidor (UNESCO Etxeko zuzendaria)

- MARTÍ, F. [et.al] (2005). *Words and Worlds. World Languages Review*. Clevedon (UK): Multilingual Matters UNESCO Etxea. <http://www.unescoeh.org> /// <http://www.amarauna-languages.com>
- MINISTERIO DE CULTURA ESPAÑA. (2005). *Declaración de Madrid en favor de la diversidad cultural*. http://www.unescoeh.org/dokumentuak/Declaracion_Madrid.pdf
- NACIONES UNIDAS (1945). *Carta de las Naciones Unidas*. http://www.unescoeh.org/dokumentuak/Carta_ONU.pdf
- NACIONES UNIDAS. ASAMBLEA GENERAL (2005). *Documento final de la Cumbre Mundial 2005*. http://www.unescoeh.org/dokumentuak/Cumbre_2005.pdf
- NAZIO BATUAK. BATZAR NAGUSIA (2005). *Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala*. http://www.unescoeh.org/dokumentuak/GGEE_Adierazpena.pdf
- PNUD (2004). *Informe sobre Desarrollo Humano 2004 : La libertad cultural en el mundo diverso de hoy*. Madrid: Mundiprensa. http://www.unescoeh.org/dokumentuak/IDH_2004.pdf
- UNESCO CONFERENCIA GENERAL (2005). *Declaración Universal de la UNESCO sobre la Diversidad Cultural*. http://www.unescoeh.org/dokumentuak/Declaracion_diversidad_cultural.pdf
- UNESCO. CONFERENCIA GENERAL (2005). *Informe preliminar del Director General sobre la situación que debe reglamentarse y el posible alcance de ésta, acompañado de un anteproyecto de convención sobre la protección de la diversidad de los contenidos culturales y las expresiones artísticas*. http://www.unescoeh.org/dokumentuak/Informe_preliminar_agosto_2005.pdf